



**Recurso 1/2012 Errekurtsoa**  
**Resolución 4/2012 Ebazpena**

**Lehendakaria / Presidente**

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

**Batzordekidea / Vocal**

M<sup>a</sup> Aránzazu Arana Learte

**Idazkaria-batzordekidea / Vocal Secretaria**

María Yeregui Hernández

Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2012ko urriaren 24an eginiko bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, segidako erabakia hartu du aho batez, ondoren aipatuko diren ebazpenen aurka EUSKO TRENBIDEAK SA (EUSKOTREN) sozietate publikoak eta HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA enpresak batera jarritako errekurtsoetan. Ebazpen horiek eman ziren Debabarrena, Urola Erdia eta Urola Kosta eskualdeetako eta Donostiarekin loturako errepide bidezko herriarteko bidaiarien garraio publiko erregular, iraunkor eta orokorreko zerbitzuaren kudeaketa zerbitzua esleitzeko prozeduran (LUR-M-02).

En los recursos interpuestos conjuntamente por la sociedad pública EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. (EUSKOTREN) y por la mercantil HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA, S.A. contra las resoluciones que se dirán, recaídas en el procedimiento de adjudicación del contrato de gestión del servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros interurbano por carretera de las comarcas de Debabarrena y Urola Erdia, Urola Kosta y su conexión con Donostia-San Sebastián (LUR-M-02), el Tribunal Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 24 de octubre de 2012 con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 2012ko urtarrilaren 17an, epaitegi honek Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren ofizio bat jaso zuen, hartara azter zedin bi berraztertze errekurtso kontratazioko errekurtso berezi bezala tramitatu behar ote ziren. Bi berraztertze errekurtso horiek jarri ziren Debabarrena, Urola Erdia eta Urola Kosta eskualdeetako eta Donostiarekin loturako errepide bidezko herriarteko bidaiarien garraio publiko erregular, iraunkor eta orokorreko zerbitzuaren kudeaketa zerbitzua esleitzeko prozeduran (LUR-M-02) emandako bi ebazpenen aurka.

- Lehen errekurtsoa jarri zuten, Kontratazio Mahaiaren aurrean 2011ko abenduaren 1ean, (...), EUSKOTREN sozietate publikoaren izenean, eta (...), HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA merkataritza enpresaren izenean, 2011ko azaroaren 2ko ebazpenaren aurka, zeinaren bidez lizitaziotik kanpo utzi baitzen enpresa biek elkarrekin aurkeztutako proposamena, prozeduran aurkeztutako bakarra.

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** Remitidos por el Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias y por si procediera tramitarlos como recursos especiales en materia de contratación, el día 17 de enero de 2012 se recibieron en este Tribunal dos recursos de reposición contra sendas resoluciones dictadas en el procedimiento de adjudicación del contrato de gestión del servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros interurbano por carretera de las comarcas de Debabarrena y Urola Erdia, Urola Kosta y su conexión con Donostia-San Sebastián (LUR-M-02):

- Uno interpuesto el 1 de diciembre de 2011 ante la Mesa de contratación por (...), en representación de la sociedad pública EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. (EUSKOTREN), y (...), en representación de la mercantil HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA, S.A., contra la resolución de 2 de noviembre de 2011 por la que se acordó excluir de la licitación la proposición presentada conjuntamente por ambas empresas, única presentada en el procedimiento.



- Bigarrena jarri zuten, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuaren aurrean 2011ko abenduaren 16an, (...), EUSKOTREN sozietate publikoaren izenean, eta (...), HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA merkataritza enpresaren izenean, prozedura hutsik utzi zuen 2011ko azaroaren 11ko Foru Aginduaren aurka.

Bigarren horretan eskatzen dute Foru Aginduaren gauzatzea kautelaz etetea, beste lizitazio bat hasteak Gipuzkoako gizarteari kalte larriak eragiteko arriskua dagoelakoan.

**BIGARRENA.-** Kontratua lizitaziora ateratzeko iragarkia 2011ko maiatzaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Beraz, kontratazio espedienteari hasiera eman zitzaionez 2011ko azaroaren 14ko 3/2001 Errege Dekretu Legegileaz onartutako testu bateratua indarrean sartu baino lehen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legea aplikatu behar da, Errege Dekretu Legegilearen lehen xedapen iragankorraren arabera.

**HIRUGARRENA.-** Sektore Publikoko kontratuei buruzko Legeak 316. artikuluko 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa betez, Epaitegiko lehendakariak Departamentuari eskatu zion bidali ziezaien espedientea, zegokion informarekin eta eskatutako kautelazko neurriari buruz egin nahi zituen alegazioekin batera. Urtarrilaren 27an, espedienteari eta informeari sarrera eman zitzaien Epaitegiaren erregistroan.

**LAUGARRENA.-** 2012ko otsailaren 10eko ebazpenaren bidez, Epaimahaiak erabaki zuen ez onartzea errekurritutako Foru Agindua kautelaz etetea.

**BOSGARRENA.-** 2012ko irailaren 14an, (...), EUSKOTREN sozietate publikoaren izenean, eta (...), HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA merkataritza enpresaren izenean, bi errekurtsotan atzera egiteko asmoa adierazi zioen idatziz Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko Idazkaritza Teknikoari. Atzera egite hori epaitegi honi igorri zaio, erregistroan urriaren 22an sartu den Departamentuaren ofizio baten bidez.

- El otro interpuesto el 16 de diciembre de 2011 ante la Diputada Foral de Movilidad e Infraestructuras Viarias por (...), en representación de la sociedad pública EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. (EUSKOTREN), y (...), en representación de la mercantil HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA, S.A., contra la Orden Foral de 11 de noviembre de 2011 por la que se declara desierto el procedimiento.

En este último solicitan que se suspenda cautelarmente la ejecutividad de la Orden Foral para evitar los graves daños que el inicio de una nueva licitación podría provocar, según afirman, a la sociedad guipuzcoana.

**SEGUNDO.-** El anuncio de licitación del contrato se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 20 de mayo de 2011. Por lo tanto, habiéndose iniciado el expediente de contratación antes de la entrada en vigor del Texto Refundido aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, resulta de aplicación, según la disposición transitoria primera del mismo, la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

**TERCERO.-** En cumplimiento de lo previsto en los apartados 2 y 3 del artículo 316 LCSP, el día 18 de enero el Presidente del Tribunal requirió al departamento que remitiera el expediente, acompañado del correspondiente informe y de las alegaciones que considerase oportuno realizar en relación con la medida cautelar solicitada; expediente e informe que tuvieron entrada en el registro del Tribunal el día 27 de enero.

**CUARTO.-** Por resolución de 10 de febrero de 2012 el Tribunal desestimó la suspensión cautelar de la Orden Foral recurrida.

**QUINTO.-** En fecha 14 de septiembre de 2012 don (...), en representación de la sociedad pública EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. (EUSKOTREN), y (...), en representación de la mercantil HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA, S.A., manifestaron por escrito ante el Secretario Técnico del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias su voluntad de desistir de ambos recursos. Desistimiento que ha sido remitido a este Tribunal mediante oficio del departamento que ha tenido entrada en el registro el día 22 de octubre.

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENA.-** Aurkeztutako proposamen bakarra

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.-** El acuerdo de la Mesa de contratación



lizitaziotik baztertea erabakitzen duen Kontratazio Mahaiaren erabakia, batetik, eta esleipen prozedura hutsik utzi zuen Foru Agindua, bestetik, eman ziren garraio publikoko zerbitzu baten kudeaketa kontratu baten gainean, eta kontratu horren urteko kontratua 500.000 euro baino gehiago da eta iraupena, berriz, bost urte baino gehiago.

Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 310. artikulua 1.a) eta 2.b) eta c) ataletan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio alorreko errekurtsu berezia jar daiteke ebazpen horien aurka, eta Auzitegi honek eskumena du horren gainean erabakitzeko, kontratazio alorreko errekurtsuetarako Foru Auzitegi Administratiboaren sorrerari eta araudiari buruzko 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak 2.3.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legeak bere 316.1 artikuluan xedatzen du ezen kontratazio alorreko errekurtsu bereziak izapidetuko direla 1992ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren arabera, ondorengo puntuetan aipatzen dituen berezitasunekin.

30/92 Legeak bere 90. artikuluan xedatzen du ezen interesdunek atzera egin dezaketela beren eskaeran, eta, hasierako idazkia interesdun bi edo gehiagok aurkeztua bada, inork atzera egiteak edo uko egiteak, atzera egin edo uko egin duenari bakarrik eragingo diola

30/92 Legeak bere 91. artikuluan xedatzen du ezen Administrazioak bete-betean onartuko duela atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango duela prozedura; hala ere, ez duela prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek, edo hasitako prozedurako gaia interes orokorrekoa bada edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hezuramaitzea. Kasu horietan, administrazioak interesdunarentzat mugatu ditzake atzera egiteak, eta aurrera eramango du prozedura

Kasu honetan ez da ematen errekurtsua hezuramaitzen jarraitzeko aukera emango luketen gorabehera horietatik bat bera ere, eta, beraz, onartu egin behar da atzera egin izana.

**HIRUGARRENA.** Ez da ikusten errekurtsua jartzean fede txarrik edo ausarkeriarik izan denik, Epaitegiak

que resuelve excluir de la licitación la única proposición presentada y la orden foral que declara desierto el procedimiento de adjudicación se dictan en relación con un contrato de gestión de un servicio de transporte público cuyo presupuesto anual es superior a 500.000 euros y cuyo plazo de duración es superior a cinco años.

Por lo tanto, de conformidad con lo establecido en los apartados 1.c) y 2.b) y c) del artículo 310 LCSP, las resoluciones son susceptibles de recurso especial en materia de contratación, y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, por así venir establecido en el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** El artículo 316.1 LCSP dispone que el procedimiento para tramitar los recursos especiales en materia de contratación se regirá por las disposiciones de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (LRJPAC), con las especialidades que se recogen en los apartados siguientes.

El artículo 90 LRJPAC establece que todo interesado podrá desistir de su solicitud y que si el escrito de iniciación se hubiera formulado por dos o más interesados el desistimiento sólo afectará a aquéllos que lo hubiesen formulado.

Según el artículo 91 LRJPAC la Administración aceptará de plano el desistimiento y declarará concluso el procedimiento, salvo que, habiéndose personado en el mismo terceros interesados, instasen éstos su continuación, o que la cuestión suscitada entrañase interés general o fuera conveniente sustanciarla para su definición y esclarecimiento, en cuyo caso la Administración podrá limitar los efectos del desistimiento al interesado y seguirá el procedimiento.

En el presente caso no se da ninguna de las circunstancias que permitirían continuar la sustanciación de los recursos, por lo que procede aceptar el desistimiento formulado.

**TERCERO.-** No se aprecia en la interposición de los recursos la existencia de mala fe o de temeridad que



errekurtsogileei inolako isunik jartzeko moduan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 317.5 artikulua dioenari jarraikiz.

mueva al Tribunal a imponer a las recurrentes una multa en los términos previstos en el artículo 317.5 LCSP.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

## ERABAKITZEN DU

## ACUERDA

Atzera egiteagatik amaitutzat ematea EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS SAK eta HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SAK elkarrekin jarritako kontratazio alorreko errekurtso bereziak.

Declarar terminados por desistimiento los recursos especiales en materia de contratación interpuestos conjuntamente por EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. (EUSKOTREN) e HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA, S.A.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 319.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik aurrera.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 319.1 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2012ko urriaren 24a**

**San Sebastián, 24 de octubre de 2012**